

# Nafarkaria

• ostirala • 1997ko irailaren 26a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Lesakako hirigintza plana** • hainbat talde aurka.

**Udazken beroa euskal irakaskuntzan** • Aingeru Epaltzak urte gogorra iragarri du.

**Gure aukerak** • Ibilaldiak bizikletaz eta oinez, lehiaketak eta kontzertuak.



# Aezkera

# aztertuz

Hiriberriko kalea, 1924an. Emaztekiak eta artzain eta haur bat, garaiko jantziekin. • ROLDAN

Iñaki Camino filologo eta ikertzaileak 'Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa' lana aurkeztu berri du. Caminok

ezeztatu egin du aezkera dialekto bat zelako ustea. Luis Luzien Bonapartek behenafarrerera zela zioen arren, Caminok goinafarreran kokatu du. Aezkera galtzen ari dela onartu badu ere, euskarak Aezkoako bailaran etorkizun handia duela azpimarratu du.



# Lesaka • Hirigintza Plan berriarekin haserre

«Azkarregi eta ezkutuan egitea» eta «beharrei ez erantzutea» salatu dute

**Lesakako Udalak onetsi berri duen Hirigintza Planak zenbait talderen haserrea eragin du. Plan berriaren arabera, familia bakarreko etxebizitzek lehentasuna izango dute, eta babes ofizialeko etxeak epe luzera baino ez dira eransten.**

**A**LKAIAGAKO INDUSTRIALDEAREN inguruan etxeak eraikitze-ko aukera emateak eta aisialdirako gune eskasiak ere hasarrea piztu dute herritarrengan.

Denbora franko daramate Lesakako Udalean Hirigintza Plan berria eztabaidatzen. Hala ere, herritar anitzek plana gordeka egin dela salatu dute. Halaber, alegazioetarako epea «laburregia» izan dela. Plan berriak herriguneko aldaketa handi-handirik eragingo ez badu ere, horren inguruan aldaketa nabarmenak sor ditzake.

Hala, egun Landazelaiak deitzen den eramuak erabateko aldaketa izango luke. Familia bakarreko zein bi familiatako etxeak eraiki ahal izango dira lehen fase batean. Bigarren epe batean, etxebizitza kolektiboak sor daitezke, eta azken epe batean eraikiko lirateke babes ofizialeko etxebizitzak.

Erabaki horiek direla eta, HBK, Independienteak taldeak eta Langabetuak taldeak herri batzarreko deia egin zuten irailaren 12rako. Herriko Etxean biltzeko eskaera egin zieten arren, alkateak ukatu egin zien, «azalpenak zi-

negotziek eta teknikariek eman behar dituztela» eta «egoitza horretarako egokia ez dela» argudiatuz.

## 200 etxe hutsik

Udaletxeko arkupetan egin zuten batzarra, eta plana gaitzesteko orduan, «herriaren beharrei erantzuten ez zaizela» izan zen ondorio nagusia. «Etxebizitza politika baten beharra dago», HBko kideentzat. «200 etxe inguru daude hutsik herrian; horietan esku hartu beharko luke Udalak, eta horretaz gain, kooperatibismoaren bidez, gazteentzako etxebizitzak eraiki beharko lituzke». Batzarrean agertu ziren taldekideentzat, «Plana onartuz gero, bigarren etxebizitza ugari eta aberatsen poltsikora moldagarriak direnak baino ez dira eraikiko hurrengo hamar urteetan. Lesaka zona erresidentzial bihurtu nahi dute, dauden beharrei erantzun gabe».

Alkaiagako industrialde berriaren inguruan etxebizitza mordoa egitea pentsatzen da. Familia bakarreko etxebizitzek gain, Bidazka lantegiaren pabiloi zaharretan, Berako saihesbide ondoan pisuak eraiki ahal izanen dira.



Hiriguneko ez du eragin handirik izango Hirigintza Plan berriak. Aldaketa nabarmenak eragingo ditu, baina, inguruko auzoetan • JAGOBA MANTEROLA

Baina etxebizitza politikaz gain, aisigune eta parke beharra sumatzen dute herritarrek. «Mendi artean bizi arren, parkeak, berdeguneak eta ibilbideak behar dira herri osoan eta inguruetan. Plan honekin, aisiguneak zona hagitik konkretu batera mugatzen dira». Udala Planaren aurka daudenentzat, aldiz, herrian zehar

zabaldu behar dira eta inguru desberdinak sortu behar dira.

Plangintzak, aldiz, Landazelaian aurrekusi du aisirako kokagunea. Diskoteka bat eraikitze-ko asmoa dago, eta horren inguruan joango litzateke zerbitzu gune bat. Etxebizitza berriak ere nola inguru horietan aurrekusten diren, eremu hori jotzen da

aproposentzat. Hiru talde horientzat, aldiz, gainerako bizilagunak «ahantzi» egiten dira.

Plan urbanistikoak jorratzen duen hirugarren atala eraikuntza eta lokal publikoena da. Planaren arabera, epe motz edo ertainean Lesakak kiroldegia izanen du, lehenagoko zahar-etxea dagoen tokian. Talde hauentzat, baina, kultur etxe baten premia ageri-gerikoa da.

HBko kideentzat, uztaillaren 18an onartutako plana «iaz ez da eztabaidatu. Publiko egin zenetik, legeak eskatzen duen hilabetea

jende aurrean egon den arren, abuztuaren eta irailaren hasieran izan da hori, jendea oportetean zegoenean». Herri batzarreko kideentzat, «ixilka, gordeka eta interes partikularren defentsan diseinatu dute plana, arrunt elitista».

Irailaren 15ean bukatu zen alegazioak egiteko epea. «HBk behin eta berriz eskatu du epea luzatzeko, jendeak ez zuelako horren berri». Berrogeiren bat alegazio aurkeztu dira. Gehienetan, euren lurrak bide publikoetarako erabiliko ziren jabeak. Bada, hala ere, hiru familia aterbetzen dituen etxebizitza zutik mantentzea eskatzen duen bat ere.

EAJko eta EAKo zinegotzien aldeko botoekin eta HBkoen abstentzioarekin onartu zen Udala Plangintzaren hasierako onespina. HBko kideek euren abstentzioa «prozeduraren inguruko urratsetan» arrazoitu dute. Udalak hasierako onespina egin ostean, Nafarroako Gobernuak berretsi beharko du erabakia, eta gero, azken aldiz onetsi beharko da, Lesakako Udalean.

→ Jon Abril

muga enea

MIKEL REPARAZ



**H**irigoitin eta Hiribeitin festak ospatu dituzte bart. Bietan herri afaria izan zen iluntzean. Hirigoitikoek —alkate progresista berritzaile horrekin, aladiotz!— abangoardiako sukaldaritza modernoa gozatzeko parada izan zuten: marakuya konfitatuz betetako ilarrak eta maldaran sirope kanapeak.

Hiribeitira, alta, ez da oraindik haize berririk ailegatu, eta aldamenen artean txistorra, tripota, zikiro errea piperrekin eta Erronkariko gazta irentsi zuten, urtero ohi dutenez. Izan ere, ez baitzaizkie tenore berriei beharturik ere egokitzen.

Hiribeitin, esaterako, ermitako mezan ezin kabiturik kantatu zioten patroiarri, eta Villabajo-Hiribeiti jumelajeko delegazioa berandu iritsi zen

## Berritu beharraz

etxafuegora. Goikoek ez zuten halako arazorik izan artean. Hirigoitiko txupinazoa eta meza Internet bidez jarraitu ahal izan baitzuten, *World Wide Web* horretan *Pentium* aski potente baten jabeek bederen. Ermitatik kanpo gelditu zirenentzako, gainera, pantaila erraldoi bat eraiki zuten Bill Gates plazan —Foruen plaza zaharrea—, eta Uptown-eko alkatea bideokonferentzia bidez mintzatu zitzaizen herritar anaituei. Hiribeititar gaxoek, Navarro Villosladaren leizeetan kokilduta, Joselu Anaien korridak trakeski dantzatu zituzten goizaldera arte, kalimotxo eta zurrakapotez blai. Artean, orduetegi europar estandarrerara egokiturik, Udalak antolatutako *techno performance* sofistikuak egin zuen Hirigoitiko berbera, eta edari inteligen-

te subentzionatek ordezkatu zituzten, dekretuz, txosnetako katxiak. Zeinek esanzen luke, duela gutxi arte, sokamuturra birtualak zezen benetazkoen lekua beteko zuela, edota haurrentzako gaztelu puzgarri tradizionalak, tirapitxonekin batera, simuladore informatikoen mesedetan desagertuko zirela... Eta bestondoaren kontrako kaldi-ko beroari *Revitalizer* izena emanen zitzaioala?!

Iruñean losetak eta farolak izan ziren lehenik, gero Sanferminetako teknoplaza, drag queen haiek eta orain Nafarkaria berria. Adi, garai berriak datoz eta. Berritu ala hil —portzieto, herritarren presioa medio Hirigoitiko alkateak dimisioa aurkeztu berri du, eta ez omen da HBkoa—.

Ziordia

Arazoak N-1 errepidean

AZKEN EGUNETAN ZIORDIKO HERRIA kalera atera da herriko Udalak Nafarroako Gobernuari eskatutako alegazioak aldarrikatuz. Udalak Gobernuari autobidearen azpitik pasabide bat eskatzen dio. Pasabide horren zabalera eta altueran dago arazoaren kokoa. Nafarroako Gobernuak kotxe bakarra pasatzeko pasabidea egiteko asmoa du, baina ziordiarrek ez dira horrekin konformatzen. Pasabide zabalagoa nahi dute, bertatik pertsonak, bi kotxe, traktore bat edo artaldeak pasatzeko modukoa.

Eskakizun hori lortzeko asmoz, edozer gauza egiteko prest daude ziordiarrek, eta azken hamabost egunetan bi aldiz moztu dute N-1 errepidea. Mozketak egin direnean sekulako trafiko arazoa sortu izan da errepide horretan. Hala ere, bertan gelditutako kotxe eta kamioiak harriduta gelditu dira herri oso bat (haur, gazte, heldu eta zahar) bide berrian ikusirik. Herriak egin duen presioa dela eta, Ansuategik, Nafarroako gobernadore zibila, bere burua aurkeztu behar izan du bitartekari bezala. —> Olatz Irizar

Igantzi

San Miguel bestak gaur hasi eta asteartera arte

GAUR 20:00ETAN BOTAKO DEN SUZIRIAREKIN hasiko dira Igantziko bestak. Bortz egunez, kirola, musika eta animazioa nagusituko dira kaleetan. Txupinazoarekin batera, Larrakaitz txaranga ariko da, kankailu eta buruhandiekin. Arratsean, Laiotz taldearekin dantzaldia izanen da.

Etxarri Aranatz



MAIDER BETE

Ikastola handitua eta berritua

Andra Mari ikastolari heldu zaio iazko Nafarroa Oinezeko izerdien emaitza jasotzeko ordua. Etxarri Aranatz pasan den igandean zabaldu zuten ikastolaren zati berria, dotore askia. Ikasgelez aparte, musika aretoa, eskularen gela, laborategia, informatika gela, liburutegia, kiroldegia eta tutoritza gelak ditu zati berriak. Obrak 75 milioi pezeta inguru kostatzen dira. Inaugurazio ekitaldian, ikastolan 25 urte eman dituen Juan Mari Jaka andereinoa omendu zuten. Hasi berria den ikasturtean 418 ikasle ariko dira Etxarri Aranatzko ikastolan.

Bihar, inguruko herrietako jende anitz hurbilduko da Igantzira, inguruko azken bestak baitira. Goiz-goizetik bilduko dira, gosaria eta plater tiraketa izanen baitute. Arratsaldean, herri kirolak izanen dira, arpana eta motozerra arteko apustua izanen da ikusgarriena. Iñaki Perurena ere harrira jasotzen ariko da, eta Joxe Bikondoak begiak estalita ekingo dio zutik dagoen enbor muturra mozteari. Igandean, haurrentzat jokoak izanen dira egun osoan. Haurren pilota partiduak eta bertso saioa ere izanen dira. Peñagarikanok, Iturriagak, Sorozabalek eta Maiak kantatuko dute Setatik aitzinera plazan. Gauerdian, Kristina eta Amaiarekin dantzaldia.

Astelehenean patroia eguna ospatuko dute, eta Arkaitz taldeak joko du arratsean. Asteartean, herri bazkaria izanen da ekitaldirik garrantzitsuenak, adin guztietako igantziar mordoa bilduko baita. Egaña eta Lizaso bertsoariak kantatuko dute eta Zizkuitz txaranga alaituko ditu tartak. Besta akabera Egan taldearekin egingen dute igantziarrek. —> Jon Abril

Altsasu

'Gure Herriaren Kronika Historikoa' denon eskura

1995EAN ALTSASUKO UDALAK ETA EUSKO IKASKUNTZAK sinatutako akordioaren ondorioz sortu da, Altsasuko historiaren bilakaerari buruzko liburu osatua. 200 orrialde pasatxo dituen honek, Altsasuko demografia, ekonomia eta hirigintzan oinarritzen da. Ikerketa Eusko Ikaskuntzak bultzatu zuen, eta liburuak Nafarroako Aurrezki Kutxak finantzatu du.

Irailaren 10ean, udaletxeko areto nagusian liburuaren aurkezpen ofiziala izan zen. Jose Maria Jimeno Jurio izan da obraren koordinatzailea. Liburuak elebitan argitaratu dute, eta 1.000 pezetan dago salgai. —> Aitziber Etxaiz



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Belate-Donztebe errepidea

Ttipi-Itapa aldizkariak, azken zenbakian, Belate eta Donztebe arteko bide berriari eman dizkio azala eta barneko bi orrialde. Erreportaia zabalean, bide berriaren trazuak laborantza lurra hondatuko lituzkeela nabarmendu du Aitor Arozenak: «Zozai eta Donztebe artean egingen den karretera berria ez da Bertizarana eta Donztebeko jendearen gustokoa. Izan ere, Legasa partean orain dagoen luzea aprobetxatu beharrean, Lakoizketa baserriko lurra hondatuko ditu bide berriak, mendi zati handi bat harrotuz, Legasako fabrikatik sartu-aterian ibiliko diren kamioien arazoa ez du egitan

moldatuko eta lanen aurrekontua nabarmenki haundituko da, gainera». Lakoizketa-ko bizilagunek, Bertizaranako kontzejuen eta Donztebeko Udalaren laguntzarekin, beraien alegazioak aurkeztu zituzten Nafarroako Gobernuan maiatzaren 27an. Oraindik erantzunik jaso ez dutenez, sinadura bilketari heldu diote.

Lakoizketakoa da NARBARTEN laborantza-rik bizi den familia bakanetakoa, eta errepidea proiektuan ageri den bezala egingen balitz baserriaren etorkizuna iluna ez ezik «hila» egonen litzakeela uste du Jesus Mari Argain nagusiak: «Etxea bi karretera haun-

diren artean geldituko litzateke, eta lurra lau zatitan banatuak».

Joan den mendean, gaur egungo errepidea egin zenean, baserriko lurra erdibitu zituzten; gero, 50.eko hamarkadan, Legasako zubira zuzenean sartzeko bidea egin zen, berriz ere beraien jabetza zatituz; iaz, azkenik, zubi berrirako errotanda egin zenean ere Lakoizketako lurra hartu zituzten.

Oraingoan, Nafarroako Gobernuak proposatutako tratu berri hori dago, «logikarik gabea». Argain eta Eduardo Gil Bera NARBARTeko bizilagunen ustez, «hagitzez garestiago izanen da Legasako luzea zabaltzea baino».

Donesaturdiko



Juan Kruz Lakasta

Lierni

Lierni hiru urte ditu, eta jada munduko gizakirik trebeena da gauza batean, amaren hitz egiteko doinuak ezberdintzen, hain justu. Oraindik ez du amak esaten duen guztia ulertzen, baina berdin dio. Berarentzako askoz garrantzitsua da amak gauzak nola esaten dituen zer esaten duen baino. Gauzak esateko moduagatik, doinuagatik, ama nola dagoen atzematen du zehaztasun osoz: triste eta maitekor, fereketan aritzeko gogoz: alai baina urduri, haserretzeko gertu: alai eta lasai, jolasteko irrikan...

Goiz hartan, amak esnatu zuenetik, ezohiko doinua erabili zuen berarekin. Doinu haren arabera, ama aldi berean zegoen alai, kontent, lasai, maitekor, jolasteko gogoz, fereketan aritzeko irrikan... Guztia batera. Lierni arraroa iruditu zitzaion. Gertatzen zen lehen aldia zen. Ez zekien zergatik, baina bazekien zerbait gaizki zihoala.

Beste hainbatetan bezala, Kale Nagusiko haien etxea atzean utzita, Villavesa hartu zuten. Autobusean bera bezelako haur andana zegoen, eta haur horien guztien gurasoek amaren antzeko doinua erabiltzen zuten. Ama eta bera gainontzeko haur eta guraso guztiekin batera jasitsi ziren, eraikin baten aurreko geltokian.

Sentitzen zuen urduritasuna areagotu zen. Ez zekien zergatik, baina bazekien zerbait gaizki zihoala.

Eraikinean sartu ziren, eta hango usaina ezaguna egin zitzaion, usaintzen zuen lehen aldia bazen ere. Ordura arte sentitzen zuen urduritasuna beldur bilakatu zen. Gela bateko atean geratu ziren. Gela barruan, emakume batek, amaren doinu berberaz, «zatoz laz-tana, ez zaitez larritu, hemen ikastolan oso ongi pasatuko duzu eta», esan zion. Beldurra izu bilakatu zen. Malko potoloz negar egiten hasi zen. Ez zekien zergatik, baina bazekien zerbait gaizki zihoala. Nik badakit zergatik: instintoagatik, senagatik. Arkumeak otso lehendabizikoz ikusten duenean sentitzen duena sentitzen ari zen, urtxintzak arranoa lehen aldiz dakusanean sentitzen duena. Inork ez daki zergatik, baina badakite zerbait gaizki doala. Lierni gajoa... ●

# Iñaki Camino filologoa

## «Aezkerak ez du etorkizun errza Aezkoan, baina euskarak bai»

**Iñaki Camino Lertxundik 'Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa' ikerketa lana aurkeztu du. Hamabost urte eman ditu lan zehatza burutzeko. Caminok, besteak beste, aezkera goinafarrera dela ondorioztatu du eta Iruñeko euskararekin lotu du. Bestalde, aezkera galtzen ari den mintzoa bada ere, euskarak Aezkoako bailaran aurrera egiten duela dio.**

■ **Hemeretzi urterekin iritsi zinen Aezkoara. Zerk bultzatuta joan ziren hara?**


Banekien hainbat lekutan hizkuntza itzaltzen ari zela eta ibar haletan datu biltzen ibili nintzen. Oso datu biltze xumea, apala eta gaizki egindakoa izan zen. Gulian, Olaiabarren, Arakilen, Artzibarren, Zaraitzun, Aezkoan, Errolbarren eta Ultzaman ibili nintzen. Aezkoakoa hautatu nuen geolinguistikoki gune transizional eta dialektologikoki gune interesgarri batean kokaturik zegoelako. Hau da, gune hartan biltzen dira hiru hizkuntz eragin: bata litzateke Nafarroa Beherekoa, bestea Nafarroa Garaikoa, eta bestea Pirinioetako, eta horiek hizkerari ematen dioten itxura elektikoa da.

■ **Bide luzeko lana izan da. Zer ondorio atera dituzu?**

Besterik esan bada ere, aezkerak ez du dialekto estatusa, eta goinafarreraren kokatzen da. Artze eta seguruenik Urraulgoitiko mintzoekin lotua dago eta Joakin Lizarraga Lizarraga *Elkanokoa* idazle eguestarraren mintzoaren antza du. Era berean, aezkerak ez ditu ezaugarri propioak eta bakarrik, berak dituen ezaugarriak inguruko mintzoaren batean ere gertatzen dira. Aezkera transiziozko gune batean kokatzen da, zaraitzuera, goinafarrera eta behenafarrera batuz. Goinafarreraren barruan aezkera periferiako mintzoa da, goinafarreraren ezaugarri batzuk ez baititu bereganatu. Esan liteke ere, Zaraitzun, Erronkarin, Soulen, Zize eta Mixeko bailarak eta Adurreko ibaiaren bidean gertatzen diren ekialdeko dialektoen ezaugarri asko falta zaizkiola. Aezkerak erdiko euskararekin bat egiten du, Iruñeko eragin linguistikoein batzen da. Aezkerari emandako ezaugarriak aurkitu ditugu Zaraitzuko bailaran, baina, hala ere, Zaraitzuko uskara eta Aezkoakoaren arteko alde dialektala handia da, are gehiago batetik bestera zazpi kilometroko distantzia besterik ez dagoenean. Hala ere, Aezkoan, Zaraitzun, Erronkarin eta beste esparru geografiko batzuetan ezaugarri berak ematen dira, horrek iradokitzen duen guztia ere.

■ **Behenafarrerarekin lotura duela diozu baina goinafarrera dela. Hortaz, Luis Luzien Bonaparteren euskalkien banaketa irauli duzula esan liteke?**

Luis Luzien Bonapartek oso lan txukuna egin zuen eta bere mapan nabaritzen da hiru eremu badaudela. Gaur egun Bonaparteren mapan behenafarrera dena nik goinafarreratzat hartuko nuke. Dena dela, Bonapartek bere zalantzak age-



Iñaki Camino Lertxundik filologoa eta ikertzailea. Luis AZANZA

rian utzi zituen bai Erronkariko hizkerarekin, bai Ultzamakoarekin, bai Bergarakoarekin. Orduan bera ere ez zebilen oso urrun. Lau mapa egin zituen; beraz, dinamiko zen bere planteamenduetan eta hark egindakoa txukundu eta doitu besterik ez da egiten hemen.

■ **Aezkoako artzainak Bardeetara baino gehiago Nafarroa Beherera joaten ziren trasumantziara. Horrek izan du eragina aezkera behenafarrera dela esateko?**


Dauden berri historikoan arabera, Aezkoak sekulako lotura du Nafarroa Beherearekin. Emaztekiak lanera joaten zirelako etxetara, hainbat gizon zein emazteki artajorrara eta hainbat lan gogorretara joaten zirelako eta oraindik ere Jean Barbie-rrek eta Jean Etxeparek aipatzen dituzte atxak. Aetx horiek ziren lan oso gogorretara joaten zire-

### ● Aezkoako euskararen ikerketa dialektologikoa

nak, bai gizonak bai emaztekiak. Aribeko azken euskaldunak niri ziotan lehenagoko Iruñea Donibane-Garazi zela. Erran nahi baita, berek Iruñea urrun zutela eta Donibane gertuago. Nik hori onartzen dut baina neurri batean horrek ez du kentzen aetzak Iruñera joan izatea. Baina ez dago ukatzerik sekulako lotura sozio-ekonomikoa izan dutela aetzek Nafarroa Behereko euskaldunekin. Bardeara ere joan izan dira beren artaldeekin, ez zaraitzuarrak eta eronkariarrak hainbat, baina Gasconian gerra baldin bazen aezkoarrak joaten ziren Bardeara. Baina horri buruzko datu historikoak ez ditugu ongi ezagutzen eta ezin bestekoa da Aezkoari buruz lanean serio hastea, artxiboetan zoko-miran ibiltzea eta hizkuntzaren inguruko datuek dioskuntena giza geografia diakroniko eta historiko batek osatzea. Egia da Erronkari eta Zaraitzu lotuagoak daudela Ipar Euskal Herriko hizkerarekin aezkera dagoena baino, egia da Ipar Euskal Herriko jende gehiago ezkondu dela Zaraitzura eta Erronkarira eta joan dela bizitzera Aezkoara baino.

■ **Joan den mendetik honat aezkerak izan du eholuziorik. Esan liteke Bonaparteren garaian orain baino gertuago zegoela aezkera behenafarreratik?**

Lekukotasun bat badago, Aingeru Irigaraiarena. Jatorri frantsea duen baxenafar mintzoa dela zioen aezkera. Horrek esan nahi du harentzat aezkera eta Nafarroa Beherea gorputz beraren atalak zirela edo oso hurbil zeudela. Baina testuetara eta egungo hizkera ezagutuari begiratzen badiogu ikusten dugu testu zaharretan Lizarraga *Elkanokoaren* testuak direla aezkerarekin antzekoak eta ez Etxepare baten Garaziko hizkera. Dugun ezagutzaren arabera, batez ere, Aezkoako hizkera hiltzen ari den hizkera delako eta Nafarroa Garaia begira euskaldunak ez dagoelako, ez Artzibarren, ez Urraulgoitiko, ez ia-ia Erroibarren, ezta Auritzen eta Aurizberrin ere, Zaraitzun ere erdi galdua dago eta aetzek duten hizkuntz gune euskaldun bakarra Donibane-Garazi ingurua da. Orduan, dudarik gabe, azken mende honetan Garaziko euskarak kutsatu du aezkera, batez ere harreman handia izan duten hiztunen gan. Hori ikusten da Arian, Garraldan eta Orbaiztetan gizonen artean. Bonaparterengandik orain bitartean gertatu dena da Nafarroa Behereko aldaerak sartu direla gero eta gehiago Aezkoara. Hori historikoki etengabe gertatzen den zerbaite da, bi hizkerak hartu-eman izan du beti eta ez dago pentsatzerik lehen hartu-emanik izan zutenik. Ematen du aetzek berrikuntza batzuk hartu izan dituztela Garazin egon diren egonaldietan eta berrikuntza horiek ez direla Aezkoan gertatu baizik eta Nafarroa Beherean, batez ere Nafarroa Beherea oso handia delako eta Aezkoa oso txikia. Ariko ginatxek postulatzen Aezkoan sortutako berrikuntza bat hedatu dela Hazparneraino eta hori oso zaila da, hazpandarrak harreman gutxiago izan dutelako aetzek hazpandarrak baino. Pentsatu behar da berrikuntza horiek Nafarroa Beherean gertatu direla, iritsi direla Aezkoara, ez direla Aezkoatik pasatu eta horretan Aezkerak gorde-



Aezkoako emaztekiak, igandeko janzkera dotorean bezitutuak, 1924an. ROLDAN

## Euskararen profesionala

Iñaki Camino donostiarra da jantzi Aezkoako euskararen dialektologikoa ikerketa ematen ditu. Oso Euskal filologoa da. Arantzaz bizi den aezkerak ematen ditu. Herriko Unibertsitateko eta Gasteizko Unibertsitateko kide da eta egiteko lana aezkoari azzimarratu da. Linguistikako irakaslea da, Euskal Herriko Unibertsitateko Atlas egiteko kidea eta dialektologikoa kidea.

da Euskaltzaindian. Aurki Donostiako euskara ikertzen hasiko da hango Udalararen Karlos Santamaria beka bat jaso duelako, 1.200.000 pezetakoa (480.000 libera). Dena den, orain ikertzerko beta eta baliabideak badituen arren, urte gorriak pasatua da. «Aezkoan bederatzita bertan bakarrik gabe egon nintzen; Argia-n eta AEKn lan egin, oso gaizki jancez bizitzeko lain irabazten nuen. Badakit zer den dirurik gabe ikertzea».

Nafarroako Gobernuak Opuseko unibertsitateko edo Zaragozako Unibertsitateko

irakasleei ematen dizkie laguntzak, eta berak eskatu arren ez zuen sosik jaso. Hain baldintza eskasetan hainbeste ordu sartu eta gero, orain ikertzerko ordaintzen diotenean oso gogoko duen lanean fin eta gogor jarraitzen du. «Gu gara euskararen profesionalak eta guri pagatzen digute ikerketa egiteko. Lehenago dena borondatez egiten zen, eta pentsatzea gaur egun soldata ofizialek bizi diren pertsonak zortzi orduz lan egin behar dutela Euskal Herrian eta horrela euskararekiko ditugun zor, behar eta premia

guztiak konponduko ditugula, suizidio administratiboa eta politikoa da».

Lehenago egiten zituen parrandak eta beste hainbat gauza baztertu baditu ere, euskararen onerako izanen delakoan dago. «Euskarak profesionaltasuna behar du. Lan asko eta ongi egitea eta oraintxe bertan egitea, eta hori ez du soldata ofizial batek soluzionatzen. Horrenbeste lan dago egiteko ezinbestekoa dela norbait kezkatzea, eta horrek konprometea eta erantzukizun nabarmena eskatzen dizu, gaineratu du».

tzen du batasun bat Nafarroa Beherearekin eta horretan da berezia goinafarreraren aezkera. Beraz, berrikuntza horiek etorri dira Nafarroa Beheretik.

■ **Etorkizunari begira ez zara baikor, eta Aezkoako Bailara osatzen duten Orbaizta, Abaurrepea, Abaurregaina, Garaiola, Garralda, Aria, Aribe eta Orbara herrietan aezkeraren galera ezin gelditua dela diozu.**

Ez dakit hori non idatzi dudan eta nola esan duan. Ni erabat baikorra naiz. Aezkera mintzatzaren dutenak ez dira horrenbeste, adin handia dute, ez dira erakusten ari denak beren seme-alabei dakiten hizkera hori, erdara erakusten diete. Aezkera dakiten askok ez dute baloratzen hizkuntza, asko sufritu dutelako. Glotozidio kanpaina izugarria izan da Nafarroan, oso ongi bideratua boteretik,

### iritzia

Xamar

## Iñaki Camino edo Aezkeraren bidea

Aezkoara egin lemixiko bisitatik hamaboz bat urte dira jada pasturik, aixa erraten da. Ezontzen hasi ginuelarik xakin ginduen zer xedetan zen gazte bitxi hura. Gutarteak kokatu zelarik berehala sartu zen el ginen guztietan (Euskara irakusten, toponimiako lanak, Ai enel aldizkarittoa sortzen eta bururatzen, Aezkoako Eguna, Irati Irratia...) hainbertzeraino non abantxu dudan ematen ginduen —denbora pasa ahala— Aezkerari buruzko lan hura finitzeko asmoa ote zuen.

Baina abantxu erran dut, zeren ezontzen beigin duen bere lana gaurer xaharren aldakan: egoten, galdeginez, bilduz, kontsultatuz... xakin beharrez. Eta orei, noizpeit, karrikaratu du urte luze ebetako emaitza. Urte saldo geitza duikabe eta emaitza geitzago. Hau izanen da Aezkeraren Librua betikoz eta bistan da zerengatik: lagundu duten 42 informatzailetarik 21 ez dira jada bizi, fanak ditugu. Eta ebekin batera badae Aezkera bera, ezpeitira sobera gehiago baratzen.

Luze elekatu dugu hontaz eta zetu soluzibiderik,

ez euskalki edo azpieuskalki batek ez duelakoz (naski baduelal), beizik eta egu Aezkoako baldintzetan — demografia: mila jende baino gutiago, gehienak urtean altzinaturik; geografia: bederatzita herrietan sakabanaturik; langintza: behiti ei diren laborariak eta artzeak; mintzoa: mende bateko erdararen igadura itogarria... — ez delakoz posible.

Halere bada lan. Bertako eskolan irakusten duten Euskarak Gipuzkoakoa behar du izan? Sakanako edota Leitza? Ez, ez dugu Goi-Nafarrera salbatuko, baina ez al dago bertze biderik? Hain zaila bide da bertan ematen den Euskarak —ezondua denez gero— bertako kutsu izatea? Egu Aezko dugu kasoa, baina ber gauza da nonahi: Baztanen, Garazin, Sakanan...

Galdegiteak baduke segida eta erresponditzen orei bada (eta izanen) erreferentzia: Caminoren liburua.

Lana akatuik etorri bezala joan da -ixilik- Arantzara, bertan lan baten egitera: erreposki emanen du fruitua baina ona segurki.

Esker mila Ignazio Bidea.



«Besterik esan bada ere, aezkerak ez du dialekto estatusa eta goinafarreraren kokatzen da. Artze eta seguruenik Urraulgoitiko mintzoekin lotua dago eta Joakin Lizarraga *Elkanokoa* idazle eguestarraren mintzoaren antza du»

erabat arrakastaduna eta hori nabaritzen da. Beren erreferentziak beti izan dira erdaldunak eta horren eraginez normala da hizkera galtzea. Beste arrazoi bat da hizkera hori horrelakoa izatea irudikatzen duen gizartea galdu dela eta gaur egun Iruñera begira bizi da jendea eta lehen Donibanera. Gaur egun jendeak ez du loturirik, aldamenen bizi arren. Komunitatea desgaitzen denean, orduko egoera sozio-ekonomikoa, ohiturak desgaitzen direnean hizkera horiek irudikatu dituzten faktore sozialak gaitzen baldin badira horrek denak eragiten du sari hiztun gutti izatea bertakoa ongi egiten dutenak. Badira gazte batzuk oso ongi egiten dutenak; ez dakigu beren seme-alabei erakutsiko dieten, aezkerak ez du batera etorkizun erraza baina euskarak etorkizun izugarria du Aezkoan.

Azken batzarrean AEKn aldeko apustua irabazi gabeen eta irriatirena galdit; tirabira handia izan zen. Gazte gehienak kontzientzia hartzen ari dira. Gazte gutxiak dakite euskara, haurrak orain hasi dira eskolan, zaharrek lehenetik ere maite zuten askok. AEK gogor ari da lanean, Irati Irratia ere bai. Egun kualitatiboki eta kuantitatiboki euskararen aldeko oldarra nabarmen ari da gailentzen, zeren aurkako arkaikoa da, reduktio bat da, gero eta gutxiago dira eta oso loturik dago ideologia eskuindarrekin. Baina horiek reduktional dirak, horiek ez dute beren indarra biderkatuko eta euskararen aldeko oldarrak etengabe biderkatzen du. Hori ikusten da matrikulazioan eskolan, AEKn, Balleko Juntaren batzarrean.

Irone Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Itsasoz bestaldetik bi baxenafartar kantari



**D**aus berririk ez dugu eskeintzen xoko ments honetatik, bai ordea gure literatur ondar-mondar mokor ahantziak Euskal Herriko ekialdean pausatzen den herenerrian itsuki barreiatzen, mozkinik uzatzeko saiorik eginga ez baitugu, zer edo zertarako baliagarria delakotan egonagatik ere, oraino bederen. Ez da gutxi gero, ez ondikotzi!

Piarres Xarriton Zabaltzagarai hazpandarrak eta Jose María Satrustegi Zubeldia arbazuarrak behiala ekarri ziguten Baxenafarroan sortu eta Ameriketara zendu bi koblakarien berri, Jose Mendiague Larregain aldudetarrak eta Juan Kruz Arrosagarai Txangala luzaidarrak ari gara prezeski. Bihoa beraz bi joale hauei buruzko gaurko ele aspertua.

**1.** François Mendiague Ziburuko guarda eta Aiherrako Manexenean munduratu Catherine Larregain bikoteak ukan hamar seme alabetarik zazpi Alduden izan bazuen ere, Hazparne izan zuten haz zein heztokia bereziki, eta Hazparne izan zuen gure Josek 1863. ean Ameriketara-tzeko abiatzea. Gehienetan ere Urugay-ko Montevideo, 1875. ean Argentinako Entre-Ríos aldeko Porto-Ruiz-en eman zuen urtebetea, Urugay-ko ere San José de Mayo-n hogeitalau urte higatu aurretik. 1900. ean Montevideoa itzuli zen, eta bertan biziko zen 1937.eko irailaren 12an lautan hogeitabi urtetan zendu arteraino. Mendiague Lapurditik aldendu baino lehen, kanturako zaletasuna eratzeki ziezaiokeenik ezagutu zuen, Gratien Adéma Zalduz eta Mitxel Elizanburu Inocentius anaiaz ari gara hain zuzen ere. Horrezkero Uruguayan eta Argentinan zegoela Iparragirre, Otxalde eta Pedro Mari Otaño Barriola ezagutuko zituen — zizurkildarrak ere, Mendiaguek egin antzera, kantu liburu eman zuen argitara Buenos Airesen 1904. ean, *Alkar*

izenburupean —. Aldudekoa garai hartan kaleratzen ziren euskal argitalpen ugaritako kolaboratzailea izan genuen: Montevideoko *Euskal Erria*-n, Baionako *Eskual Herria* paper gorrian, bai eta *Eskualdun Ona* eta *Eskualduna* paper txurietan, nahiz politikoki gorria genuen, Xarritonek jaso bezala: «bonapartista, colorado, batllista eta anticlerical furibundo».

*Euskal Herria* argitalpen zaharraren ordez *Haitza* aste-karia sortu zen 1899. ean Buenos Airesen J. Sescosse zenaren zuzendaritzapean, eta honen lehendabiziko urteurrena ospatzeko aitzakipean *Zazpiak bat: eskualdun kantuar* Mendiaguereen liburuazaldu zen 81 kantekin: «Ene hoberena liburu hontan eman dut eta nahiz bertze guzien artean ene botza indar gutikoa den, ene egina ez dut neurtu izan dezeken balioan, bainan bai nik eskuarari diotan amodioan». Honetan agertzen den kantarik ezagunena, zalantzarik gabe, honakoa dugu: «Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi / Kantuz igortzen ditut nik penak ihesi / Kantuz izan dudanian zer-bait irabazi / Kantuz gustura ditut guziak iretsi / Kantuz ni bezalakoak hiltzia du merezi». Lafittek atondu 1967.eko *Kantu, kanta khantore* esku liburu errepikaezinean zuzen zetorren kantapean Mendiaguereen aipamena, berriz, egun kantua famarazi duen Mikel Laboak Arizkungo Xabier Larraldiri ikasi ziola esan

zigun Mendiaguereen egiletasuna tamalez ezkutatu.

**2.** Luzaideko Bordella da Arrosagararen bertsoez on José Maria Satrustegik aipatu liburukiak azalean erakusten digun marrazkia, Juan Kruzen sortetxea alegia. Zabalak akuilatu auspoa liburutegiko 163 zenbaki honetan kantagai dugun bertso segidari jarraikiz luzaidarraren bizibideari aisa hatzeman diezaiokegu: 1905.eko irailaren 14an jaiota, 1913. erako artzaimutil genuen bortuetan, eta 1925. ean joan zitzaigun Californiara. Hantxe harat hunat ibili izan zen ardi saldoekin, baina migrazio paper guziak zuzenegi izan gabe, 1934. ean egotzi zuten, eta horri esker, 36.eko gerratea ezagutu ahal izan zuen hurbil hurbiletik: «Bakersfielden hasia nintzen, gero sanjatu Fresno / Beste pausuan urrundu nintzen negozioz Estocktonera / Lau mila bildots bai nituen han ekarriak bazkatzera / Inmigrazio txakurrak beti segi ene errestora». Geroantzean harzara Californiaraturik, hantxe eman zuen gutiz gehiengo bizitza. Juan Kruzen bertsoak Renoko *Newsletter* aldizkarian agertu zituen *Euskaldun fidel* ezizenez, baita Baionako *Herria*-n eta Iruñeko *Príncipe de Viana*-n eta *Diario de Navarra* egunerokoak lantzean behin atera *Napar izkuntza orria* exkax zoroan.


Euskara bera zuen luzaidarrak kezka iturri, euskara batuaren beharrak arrenkutatzen baitzuen doilorki,

bada, behar beharrezkoa ikusten zuen gauza egiteke eta abantzu gauzaezina somatzen zuelako.



etorri ahalean

Patziku Perurena



## Etorri ahalean botaka

**H**alatsu ariko nahi-ko nuke, ostiel gau askotan ohaide izaten dudana Nafarkaria honetan ere. Txoko bat eskaini baitidate tarteka beltz egiteko txurian. Baina, nere orde, beste norbaitek egin nahiko balu, mesedez dei dezala (510435) eta hagitx abudo dut Albertorengana tratura. Jendeak uste izaten baitu lekuetan nor bere arrandiz, espaz eta aspizainez sartzen dela bat, eta faborez, gaur gaurkoz benpe, honako motiko honek ez luke horixe beste espa beharrik.

Egia esatera, eguneroko prentsa, nola leitzekoa hala ikusentzutekoa, ahuntzaren gauerdiko ez-tula baino gutxi gehio izaten da neretzako. Beste nonbaitean sumatu izandu baitut nik zinezko gizamina, eta ez inprenta ofizialetik bueltan taigabe datorren droga xuri pinpirin gizadi osoa loxorrotzaille honetan.

Frankotan aditua nago, halako nabarmenkeria kutsu batez edo: «Koño periodista». Eta horratx: irain gorriagorik ez izaki neretzako. Seko sinistua bainago, eguungo gizateko parasitorik ugalkorrena eta irrikatuena dela ofizianta klase berri hori. Aditu besterik ez: «Bai, nik eunero artzen dot periodikoa, ta zure kontu'e leitze'ttot batzutan» jendearen esateko modua. Elkarri laineza emateagatik edo, beste agrafo inozente horiek ez bezalako gradua badugula erakusteagatik edo... Zer esanik ez, berriz, irratiaz edo telebistaz ariko bagina.

Eta nik nere baitan: «Ai giza-joa, jakinen bazunu... zuk gradu handitan daukizun hori tortikatat daukiala nik, ta zuk gradu eskaxekotzat daukizun almazen eder ori berriz ziñezko gizagrñen altxortzat, oi yakinen bazunu... edo biotzez esplikatzan hasita ere, sinistuko baze-nit sikira, gaitzerdi; biño barren barrengo inbidi xikin bat-tek ez lizuke nere nobleza mu-

ttur hori sumatzen ere utziko, eta obeko dut ixiltzea».

Periodistak. San Dios. Gogoa ditut askoren portaera nobleak, eta ez prezisamentean erdal prentsakoarenak, inguruko abertzale zintzo bakar ustekoenenak baizik.

Eta gogoan beste holako bost ofizianta noble eta gradu haundiko. Horrexegatik eta beste arrazoi askorengatik diot erruki halakoen inbiditan bizi denari. Bejon diela. Eta bejon dizula zuri ere, txoko berri honetan beste horrenbeste gertatzen bazaizu nerekin. Parraxal lehorren bat goitibehiti, hortzak erakutsiko dizkiogu elkarri, kortesiak agintzen duen lege berrira, han edo hemen elkarrekin topo egitean.

Jakin ezazu ordea, beti bezelatsu ariko naizela ni hemen, Xantik *usufruktuan* utzi didan bazka gozo urriko euskararen larre otazu honetan, edo behar bada, inoizkoan baino motelago eta zuriago, izanez ere, gazetako grinaldi eroska haiek ari baitira itzalixetzen. Hala omen diote behintzat Urola aldetik. Nik badut hala ere errezeloa, inork inoiz inongo sedetan edo seminariotan zuzenduko horrekintxe hasten naiz hemen ere ardaian.

Denborak erakutsiko du gaineko guzia, baina nik uste ez dudala berrikuntza haundirik ekarko txoko honetara: aspaldiko egunkari ez-kutu batetik moldatuko ditudan zera batzuk; inguruotako zirtziladak; artxibotako pasarte zahar batzuk egungo belliekin nahaspilduz (eta saiatuko naiz, inondik ahalbaitean, botzen); eta noski, grinaldi, haserre, sentipen eta gisako gizamin bapatekoren bat edo beste ere aterako al da tarteka; txarra sinalea bestela; gero, baliteke liburu gustoz edo disgustoz leituren baten aipamen bat ere eskapatzea. Eta aldizka, kronika luzangaren bat edo beste ere igoal, baldin eta gogorik eta betarik izaten badut. Ikusi egin beharko.

## Xirriak

• Haitzgibel •

### Ziria


Basa-txoritxo moko luzeak ez du putreen antzik ukan nahi. Oraino kantari ariki, bada, aski fite elekatzen hasiko ote susmoa hartua dugu. *Convergentaren* bihotza dena *Linguae Navarrorum* ikasteko izena emateko prest azaldu da, seguraski honezkeroz emana du. Ekintzak edozein gisatako komentarioak sor ditzake. Betiere, anitzek pauso hori emateko daukate. Lotsatzen diren edo lotsarik ez duten ezin jakin.

# Aingeru Epaltza

Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakaria

## «Urte gogorrak izaneren direlako onartu nuen kargua»

**Nafarroako Ikastolen Elkarteko presidente hautatu berri dute Aingeru Epaltza. Dinamika berririk ezartzera ez badator ere, badaki lan asko egitea tokatuko zaiola. Aurrerantzean UPNko Administrazioarekin borrokatu beharko du oraindik sarean dituzten hamazazpi ikastolen alde.**



OSKAR MONTERO

**K**ARGUAZ JABETZEKO BETARIK izan gabe, egunotan sobera mintzatzea tokatu zaio Epaltzari. Euskararen irakaskuntzaren inguruan dituen kezkek plazartzea gustatuko litzaioke, bestek beste. Miguel Sanzen Gobernua- rekin euskal mugimenduarentzat urte gogorrak datozela uste du.

■ **Ikastolen Elkarteko presidente hautatu berria, erronka gogorra duzu aurrerantzean?**

Bai, ardura guztiak bata beztearen gainean etortzen ari zaizkit. Oraindik jabetze prozesuan nago, zehazki nondik nora gidatuko dudan nire lana konturatu gabe. Nafarroako Ikastolen Elkartea ia-ia hogeitau urte dituen elkartea delako, martxan dagoelako aspaldi eta bere dinamika baduelako. Ez dut halako dinamika berririk ezarri nahi, gehienez ere ekartzen ahal ditut euskararen inguruan eta euskararen irakaskuntzaren inguruan izan ditzakedan kezka batzuk eta ikusiko dut kezka horiek bidegarriak diren.

■ **Zein dira kezka horiek?**

Euskarazko irakaskuntzak orokorrean kezkatzen nau eta, gainera, ez dakit zein erremedio izan dezaketen. Bi gaitz harrapatzen ditut: batetik, euskara maila. Badakit horretaz ez garelako mintzatzen, itsusia gelditzen delako edo. Ikastolatan, eta, batez ere, zonalde erdaldunetan hainbertze urtetan ikastolan ibilitako gaztetxoek duten euskara mailak kezkatzen nau ikaragarri, ez baitut uste benetakoa euskalduntze prozesua ikastolekin bukatzen denik. Eta horrekin elkarloturik, hamabost-hamasei urte-

tan euskarari egiten zaion desertzio masiboa legoke. Ez dakit ikastolek deus egin dezaketen, badakidalako gaitz horren sendabidea ez dagoela bakarrik, bederen, ikastolaren baitan. Bainan ez dakit Ikastolaren Elkartea leku egokia izan daitekeen hori bideratzeko.

■ **Joan den udaberrian Hezkuntza sailburuarekin bildu zineten eta hark Nafarroan diren hamazazpi ikastoletatik hamahiru ixteko asmoa zegoela adierazi zizuen (Iruñerriko hiru handiak eta Lizarrakoa salbu). Hori aintzat hartuz udazken beroa heldu dela esan daiteke?**

Joan den udaberriaren bukaeran Hezkuntza kontseilariarekin izan zen bilera batetik atera zen ondorioa da. Hezkuntza departamentuaren ustez ikastola gehienak sobera daude eta guk oso garbi daukagu elkartean dauden hamazazpi ikastolei eutsi nahi diegula. Baliteke ikastolen munduan udazken beroa izatea eta oro har euskarazko irakaskuntzaren munduan eta, are gehiago, euskararen munduan. Ez dut uste gainera udazkena bakarrik izan denik, baizik eta heldu diren urteak gorriak eta gogorrek izan diren. Hain zuzen ere, kargua onartu banuen horregatik izan zen, ikusten dudalako hurrengo urteak latzak izaneren direla.

■ **UPN iritsi delako edo?**

Bai, bai. Oraindik beharbada gehiago egon beharko dugu ikusteko gauzak nondik nora doazen. Batetik, UPN badirudi gure kezkek entzuteko prest dagoela baina ez guri kasurik egiteko prest. Azkenean ez dakit gure kezkek entzuteko azaltzen duen jarrera hori, irekiagotzat har litekeena, ez

ote den estalki bat benetan ongi mamitutako plan bat aitzina eramateko. Ez dakit plan hori benetan dagoen ala ez, baina badira halako zantzu batzuk hori pentsarazi ahal liguketanak. Beldur naiz euskararen aldeko mugimenduarentzat Nafarroan urte latzak etor litezkeela. Hurrengo hilabeteetan ikusiko dugu UPNk benetan zer nahi duen, bake giroa euskararen alorrean edo benetan gatazka nahi duen.

■ **Legeak eskaera sozialaren arabera eskaintza bermatu behar dela dioen arren, gaur egun euskaraz ikasi nahi duen guztiak badu aukera?**

Garbi dago ezetz. Mendiandian beharbada bai. Benetan eskaera sozialari erantzuten diogunak gu gara. Ikusten badugu guraso talde bat dagoela eta proiektu bat aurrera eramateko prest, guk guraso talde horri gure babes guztia eman behar diogu. Hala ez egitea bekatu larria litzateke.

■ **Alde horretatik, zer eskatzen diozue Administrazioari?**

Eskatzen diogun gauza bakarra zuzena da izan dadila eta gainerako sare pribatuei ematen dien tratamendua eta egiten ari garen lanaren tratamendua. Momentu honetan hemen ikastolarik izan ez balitz, ez dugu uste euskara hain sarturik egonen litzatekeenik sare publikoan eta errealitate diren hainbat proiektu aurrera aterako liratekeenik.

■ **Epe laburrera, zein dira Nafarroako ikastolen erronkak?**

Momentu honetan dauden hamazazpi ikastola horiei eustea eta sendotzea. Iruñerrian euskararen goiko mailak nola geldituko diren oraindik ez dugu oso garbi eta hor badira nola edo hala gauzatu beharko diren hainbat proiektu. Oraindik ikastola guztien jarrera

### soslaia

Euskal Idazleen Elkarteko kide eta Nafarroako Euskara Batzordeko partaide izateari Ikastolen Elkarteko presidente kargua gehitu dio Aingeru Epaltzak. 37 urteko iruindarra, ezkondua dago eta bi semeeren aita da.



Ogibidez Nafarroko Gobernuak itzultzaile bada ere, benetan gustuko duena idaztea da; etxeko logelako atea itxi, ordenadorea piztu eta teklak zanpatuz testuak osatzea. Orain lanez gainezka dabil baina lehendabiziko egunetako itomena pasatutakoan, «udazkenean arbolak gorritzen eta horitzen hasten direlarik, bakea aurkitzeko momentua» izaneren dela uste du.



«Eskubete lan» dago, hainbat proiektu baititu eskuartean. Haurrentzako liburuxka bat ateratu nahi luke Durangoko Liburu Azokarako eta duela lau urte hasi zuen beste nobela luze batekin ari da lehenbailehen bukatzeko asmoz. Hori gutxi balitz, argitaratu duen *Tigre ehiza* azken nobela gaztelaniara itzultzen ari da.

eta Administrazioaren jarrera zein den ikusi nahi dugu. Garbi dago Iruñerriko proiektu oso sendo bat behar dela eta hori aitzinerat eraman nahi genuke. Gero hor barna barreiaturik dauden ikastola txikiek eustea eta sendotzea, batzuk egoera kaskarrean badira ere etorkizuna badutela-koz. Erriberako ikastolen etorkizuna kolokan dago eta beste batzuek behar dute sendotu.

■ **Dena den, bada pozik egoteko daturik. Aurten eskolaratu diren haurren % 54k euskaraz ikasiko dutelako. Seinale ona da edo datu hutsa?**

Zenbatekoekin kontsolatzeko ohitura handia dugu. Gero, ezin daiteke konparatu B eta D eredu-ko matrikulazioa A ereduarekin. Denok dakigu A ereduak zer emaitza dituen, D ereduari direnak ere kolokan ibiltzen dira batzuetan. Hala ere, A ereduak Nafarroan izan duen hazkuntzak poztan nau erakusten duelako badagoela orain arte ezagutzen ez genuen euskalzaletasun mota bat, euskaldunok eta Administrazioak berak kontrolatzen ez duena. Horretaz baliatu behar dugu.

→ Irene Arrizurieta

**BEKARIO!**

ZALDI ERDA

## MAIKEL WONDERFUL REPORTER & PRIMITIBO "THE BOY" IN BERRIKUNTZAK !!



### Nafar Kronika

Pello Argiñarena

#### Nafarkaria birtuala

**P**ijama jantzita oraindik ere, sarean murgiltzen naiz nabigatzeko asmoz. Gustura egoten naiz egunkaria irakurtzen ordendorearen aurrean eserita —nahiz eta ikusmena gero eta ahulagoa izan— sukaldetik datorren kafe egin berriaren usaia sentitzen dudana bitartean. Gogoratzen dut oraindik egunkariak paperezkoak zireneko karia. Egunkari guztiak irakurtzeko aukera eskaintzen dit pantailak, baina nik, aipaturiko bista arazoak direla eta, Nafarkaria hautatzen dut. Hedabide hau 1989. urtean sartu zen EUSKALDUNON EGUNKARIAI: zortzi orrialdeko gehigarri xume bat besterik ez zen hasiera batean. Baina gehigarri soila zena egunkariaren zutabe nagusi izatera iritsi zen.

Egoera honen aurrean Nafarkariaren arduradunek Nafarroako egunkari berezi bat kaleratzea erabaki zuten. Laster Euskal Herriko beste herrialdeetan era berean jokatzen zuten, Gipuzkaria, Bizkaikaria, Arabakaria, Zuberakaria eta Lapurdikaria argitaratuz. Administrazio Kontseiluak Nafarkariaren arrakasta ikusirik multimedia osatzea erabaki zuen aurrerago. *Nafarkaria* telebista digitala eta *Nafarkaria* irratia sortu ziren.

Aurrekoan, Nafarkariak omenaldia eskaini zien bertan betidanik aritutako langileei, euren jubilazioa zela eta. Bertan izan genituen Ana, Juan Kruz, Irene, Edurne eta Alberto. Garai haietako hainbat kontu azaltzen belaualdi berrietako kazetariei, hauek asper-asper egin arte.

Hainbeste kontu eta buelta kafean sukaldia zain daukadala ahaztu egin dut. Beste bat prestatzeko eskatuko diot ilobatxoari, medikuak agindutako goizeroko paseotxora irten aurretik.

#### KONTZERTUAK

► **Barañain: Erraldoiak eta burubandiak** zarzuela taularatuko da gaur 20:00etan Retegi frontoian Luis Morondo Musika Eskolako kantu irakasleek. Zarzuelak M. Fernandez Caballeroren musika du eta M. Etxegarainen hitzak. Iruñea: Gaztediaren Etxean Grey-souls taldea ariko da gaur 20:30ean. Elizondo: Xorroxin Irratiak antolatuta, Benito Lertxundi eta Magali Zubillaga ariko dira bihar, 22:00etan.

► **Arellano:** Skalariak eta Thanatos taldeek doako emanaldia eskainiko dute gaur 24:00etan.

► **Viana:** Josetxo Goiak eta Pello Ramirezek espreski saxofoi eta biolontxelorako egindako piezak interpretatuko dituzte etzi, 13:30ean Santa Maria elizan.

#### LEHIAKETAK

► **Iruñea:** Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) diapositiba lehiaketa antolatu du. Partehartzaileek Unibertsitatearekin zerikusi duten gaien inguruko lanak aurkeztu beharko dituzte (kanpuseko eraikuntzak, taldeak, eguneroko giroa...). Gehienez lau izanen dira, orijinalak eta aurretik saririk jaso ez dutenak eta argitaratu gabeak. Lanak NUPeko Erregistro Nagusira igorri behar dira. Irabazleak ehun mila pezeta poltsikoratuko ditu, bigarrenak 75.000 pezeta eta hirugarrenak 50.000.

► **Iruñea:** Sex Haizegoak Pintura Erotikoaren Lehiaketa antolatu du. Hemezortzi urtez gorakoez har dezakete parte. Lanaren neurria gutxienez 60 zentimetrokoa izanen da,

eta gehienez, 100ekoa. Pinturak Sex Haizegoa, Gonzalez Tablas kaleko 3an aurkeztu behar dira. Informazio gehiago 15 42 31 telefonoan lor daiteke.

#### IBILALDIAK

► **Eguesibar:** Kea kirol taldeak Iruñerriko zokoak eta bazterrak ezagutarazteko Eguesibartik barna mendi bizikletako zeharkaldia eta ibilaldia antolatu ditu etziko. Zeharkaldia 09:00etan abiatuko

da, eta ibilaldi lasaiagoa egin nahi dutenak ordu bat geroago aterako dira. Irteera bakoitzean bi gidari joanen dira, eta partehartzaileek hamabost urtez gorakoak izateaz gain, kaskoa eman beharko dute. Aralarko San Migel: Anaitasuna elkarteak Artxuetako mendira txangoa antolatu du igande honetarako. Autobusa 09:00etan aterako da elkartetik. Informazio gehiago lortzeko eta izena emateko deitu 25 49 00 telefonora.

#### ERAKUSKETAK

► **Iruñea:** Lekune galerian Marilyn Monroe: 35 años de la desaparación de un mito argazki erakusketa dago zabalik. George Barris, Bert Stern, Edward Weston, Milton Greene eta Laszlo Wileng argazkilarien lanak daude.

► **Lizarran:** Gustavo de Maeztu museoan Zumalakarregi jeneralaren bizitza islatu duen erakusketa ikus daiteke azaroaren 2ra arte.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

### SENTIMENDU BASERRITAR BAT

1952 urte inguruan. Eguerdiko aldera. Mutil baserritar gazte bat (allegro, ma non troppo, maestoso samar) bidegurutze batean, igandeko arroparekin. Han urrutian, borda bat ikus daiteke, eta harantz doa.

— Badira bide asko —dio mutilak—, baina bada bat, Perukoenera txutxen-txutxen doana. Horrexegatik nago baina kontent, Perukoenera bidean barna noalako. Gaur, goizgozik obatzetik jaiki (molto vivace ikusten da nola egiten duen kontatzen duena, gorputzaren ederra nabarmenduz), beheetik lanak puieta azkar batean egin, apaindu eta Perukoenera. Jeneralean, tenore honetan Kamioigibeleko alorrean egoten naiz, harriak ateratzen, baina gaur jaia da, eta Perukoenera noa. Horrexegatik nago baina kontent (molto allegro). Nire gogoan bantxe bizi da, eta barekin naiz biltzekoa.

Ilunabar aldera. Mutil baserritar gazte bat (andantino, no molto animato, man affettuoso) bidegurutze batean, igandeko arroparekin. Han urrutian, borda bat ikus daiteke, eta handik dator.

Orain triste nago. Bukatu egin da igandea, eta etxeko bideari lotu naitzaio. Gaur zortzi ikusiko dit berriro nire gogoan. Bitartean, Kamioigibeleko alorrean harriak ateratzen igaroko dit astea. Harriak baino zamatsua goa da itzaroteko beharra

Beharrik, haren batsa dut, bebinik bebin.

## Joanes Indart

ACQUA POR HOMME

